



HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA

Espedientea: DNCG_LEY_2893/21_11

Ekainaren 3an, *Tramitagune* tresna informatikoaren bitartez, **Kiroleko dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea aldatzera datorren Lege-aurreproiektuaren** berri jaso dugu Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaritzan. Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Aholkularitza juridikoak bidali eta derrigorrezko txostena emateko ere eskatu digu.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran, euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 73/2021, otsailaren 23ko Dekretuaren 14.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezarri zuen: “*euskararen erabileraren normalizazioaren arloan eskumena duenak araua prestatzeko hasierako fasean esku hartu ahal izan dezan*”. Azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, aurrekoa indargabetuz, bere 4. artikuluan eskaera egiteko epea ezartzen du:

“Proiektua izapidetzen ari den sailak egingo du aholkularitza txostena emateko eskaria, hori taxutzeko espedientea behin-behinekoz onartzeko agindua publiko egin ondoren, eta instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak dagokion txosten juridikoa eman ostean”.

Izapidetutako dokumentuetan jasotzen denez, aztertzea eskatzen zaigun xedapenaren alde aurreko onarpena apirilaren 7koa da eta, ekainaren 1ekoa zerbitzu juridikoaren txostena. Bete da, beraz, aipatu Dekretuak xede horrekin araututakoa.

Bestalde, hasieratik *Tramitagunen* zeuden Lege-aurreproiektuaren euskarazko zein gaztelaniazko testuak; beraz, horrela eginda, bete egin zen abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7. artikulua.



b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Xedapenaren edukia arakatu ondoren adierazten dut lege-proiektu honetan jasotakoak ez duela bestelako eraginik izango euskararen erabileran.

Adeitasunez,

Joseba Lozano Santos
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria